Zarauzko Udala

ZARAUZKO UDALERRIKO ADINEKO ZAURGARRIEI EGUNEKO ARRETA EMATEKO ZERBITZUAREN BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA		**PLIEGO DE PRESCRIPCIONES TÉCNICAS DEL SERVICIO DE ATENCIÓN DIURNA A PERSONAS MAYORES VULNERABLES DEL MUNICIPIO DE ZARAUTZ**
2026ik200013		**2026ik200013**
1.- KONTRATUAREN XEDEA Kontratu honen xedea da Zarauzko udalerriko adineko pertsona zaurgarriei eguneko arreta ematea. Zehazki prestazio tekniko hauek izango ditu: - Informazioa - Jarraipen-balorazioa - Akonpainamendua /Akonpainamendu soziala - Esku-hartze sozio-hezitzaile eta psikosoziala.		**1.- OBJETO DEL CONTRATO** El objeto del presente contrato es la atención diurna a personas mayores vulnerables del municipio de Zarautz. En concreto, el servicio contará con las siguientes prestaciones técnicas: - Información - Valoración de seguimiento - Acompañamiento/Acompañamiento social - Intervención socio-educativa y psicosocial
2.- ARAUDIA Gizarte Zerbitzuen abenduaren 5eko 12/2008 Legeak GIZARTE ZERBITZUEN EUSKAL SISTEMAKO PRESTAZIO ETA ZERBITZUEN KATALOGOAn sartzen du Eguneko Arreta Zerbitzua, lehen mailako arretako zerbitzu gisa (22.1.7 artikulua), eta esaten du udal zerbitzuei dagokiela zerbitzu horiek eskaintzea eta betetzea.		**2.- NORMATIVA** La Ley 12/2008, de 5 de diciembre, de Servicios Sociales, incluye el Servicio de Atención Diurna en el CATÁLOGO DE PRESTACIONES Y SERVICIOS DEL SISTEMA VASCO DE SERVICIOS SOCIALES como servicio de atención primaria (art. 22.1.7) y establece que corresponde a los servicios municipales la prestación y el cumplimiento de los mismos.
3.- DEFINIZIOA Eguneko Arreta Zerbitzua intentsitate txikiko udal zerbitzu bat da, egunean zehar laguntza eta prebentzioa eskaintzen duena. Zerbitzuaren xedea da erabiltzaileen autonomiari eustea, ohiko bizilekuan bizitzen jarraitzeko laguntza ematea eta gizartean integratzea.		**3.- DEFINICION** El Servicio de Atención Diurna es un servicio municipal de baja intensidad de carácter preventivo y asistencial de uso diurno. Su finalidad es contribuir al mantenimiento de la autonomía de las personas usuarias y facilitar su permanencia en el entorno habitual de vida y su integración social.
4.- ZERBITZUAREN HELBURUAK <u>Helburu orokorrak:</u> - Adinekoen autonomia bultzatzea, hondamen eta mendekotasun egoerak atzeratzea eta etxean ahalik eta denbora gehien bizitzen jarraitu ahal izatea.		**4.- OBJETIVOS DEL SERVICIO** <u>Objetivos generales:</u> - Favorecer la autonomía de las personas mayores, retrasando el deterioro y las situaciones de dependencia y posibilitando la permanencia en el hogar el mayor tiempo posible. - Facilitar las relaciones sociales y la comunicación de las personas mayores

- Gizarte-babes txikia duten eta/edo etxean bakarrik denbora luzez egoten diren adinekoen harreman sozialak eta komunikazioa erraztea, isolamendu soziala saihesteko. Helburu zehatzak: - Beste pertsona batzuekin elkartzeko eta udalerriko jarduera komunitarioekin harremanak izateko guneak ematea. - Autonomia-mailaren galera prebenitzea, haien gaitasun kognitiboak, funtzionalak eta sozialak sustatuz. - Jarduera fisikoa eta osasunaren zaintza indartzea. - Bakardadea eta depresioaren sintomak prebenitzea. - Parte-hartze guneak sustatzea, komunikazioa, hausnarketa eta iritzien ekarpena lantzeko. - Aisialdia indartzea eta ikaskuntza berriak garatzea. - Beste zerbitzu batzuen esku-hartzea behar duten premiak detektatzea. - Genero-ikuspegia ere kontuan izango da helburu horiek betetzean.		con escaso apoyo social y/o que se encuentran solas en el hogar durante largos periodos de tiempo, para evitar el aislamiento social. Objetivos específicos: - Proporcionar espacios de encuentro con otras personas y relación con las actividades comunitarias del municipio. - Prevenir la pérdida del nivel de autonomía, potenciando sus capacidades cognitivas, funcionales y sociales. - Fortalecer la actividad física y el cuidado de la salud. - Prevenir la soledad y síntomas depresivos. - Promover espacios de participación, trabajando la comunicación, la reflexión y la aportación de opiniones. - Potenciar el ocio y desarrollar nuevos aprendizajes. - Detectar situaciones de necesidad que puedan requerir la intervención de otros servicios. - En el cumplimiento de estos objetivos se tendrá en cuenta la perspectiva de género.
5.- ZERBITZUAREN HARTZAILEAK/ERABILTZAILEAK Profil hau izango da: - Mendekotasun-arriskuan dauden 65 urtetik gorako adinekoak. - Mendekotasuna aitortu gabe duten baina isolamendu sozialean eta/edo bakardadean dauden 65 urtetik gorako adinekoak. - Zailtasun-egoerak bizi dituzten adinekoak (ingurukoak galduta, dolu-prozesuetan, depresioa edo autoestimu baxua). - Salbuespenez, mendekotasun-egoeran dauden 65 urtetik gorako adinekoak (I gradua, MBB 23 eta 24 puntu, edo I graduan 25etik 39ra bitarteko puntuazioa), programa honetan parte hartzeko duten gaitasunaren arabera. - Salbuespenez, Gizarte Zerbitzuek hala baloratuta, aurreko profila izan gabe ere zerbitzu honen onuradun izan daitezkeenak.		**5.- PERSONAS DESTINATARIAS /USUARIAS DEL SERVICIO** El perfil será el siguiente: - Personas mayores de 65 años en riesgo de dependencia. - Personas mayores de 65 años sin reconocimiento de la situación de dependencia, pero con aislamiento social y/o soledad de fragilidad. - Personas mayores que viven situaciones de dificultad (pérdida de personas próximas, en proceso de duelo, depresión o baja autoestima). - Excepcionalmente, personas mayores de 65 años en situación de dependencia (grado I, MBB 23 y 24 puntos o en grado I con puntuación de 25 a 39 años) en función de su capacidad para participar en este programa. - Excepcionalmente, valorando los Servicios Sociales, las personas que, sin tener el perfil anterior, puedan beneficiarse de este servicio.

6.- ZERBITZUAREN EZAUGARRIAK		**6.- CARACTERISTICAS DEL SERVICIO**
Oro har, Eguneko Arreta Zerbitzua astelehenetik ostiralera emango da. Zerbitzu honen egutegian zehaztuko dira egun horiek, eta Udalak urte hasieran onartuko du. Zarauzko Udalak egutegia aldatu ahal izango du. Abuztuan zerbitzua eten ahal izango da, unean uneko eskaeren eta egoeraren arabera; baina, beti, enpresarekin adostuta.		Con carácter general, el Servicio de Atención Diurna se prestará de lunes a viernes. Estos días se concretarán en el calendario de este servicio que aprobará el ayuntamiento a principios de año. El Ayuntamiento de Zarautz podrá realizar cambios en el calendario. Durante el mes de agosto se podrá interrumpir el servicio en función de la demanda y la situación en cada momento, siempre de acuerdo con la empresa.
Zerbitzua, normalean, egunean 3 orduz eskainiko da: Astelehenetik ostiralera. Normalean, 10 pertsonako taldetan emango da zerbitzua; astean bi edo hiru egunez. Gizarte Zerbitzuetako Departamentuak antolatuko ditu taldeak.		El servicio se prestará habitualmente 3 horas diarias: De lunes a viernes. Habitualmente el servicio se prestará en grupos de 10 personas, dos o tres días a la semana. El Departamento de Servicios sociales organizará los grupos.
Zerbitzuaren garapenean zehar, Udalak ordutegia aldatu ahal izango du, beharren eta eskariaren arabera, bai eta zerbitzuaren erabiltzaileen interesen arabera ere. Era berean, talde bat baino gehiago jarri ahal izango dira martxan, ordutegi edo kokagune ezberdinetan.		Durante el desarrollo del servicio, el Ayuntamiento podrá modificar su horario en función de las necesidades y demanda, así como de los intereses de las personas usuarias de dicho servicio. Asimismo, se podrán poner en marcha varios grupos en diferentes horarios o ubicaciones.
Aldaketa hori behar besteko aurrerapenarekin jakinaraziko zaio enpresa kontratistari, zerbitzua antola dezan.		Esta modificación será comunicada a la empresa contratista con la suficiente antelación para la organización del servicio.
Zuzeneko arretako 3 orduez gain, egunean ordu bat gehiago aurreikusten da zuzeneko arretakoak ez diren jarduerak egiteko, hala nola materiala eta jarduerak prestatzea, koordinazioa, memoriak, etab.		Además de las 3 horas de atención directa, se prevé una hora más al día para la realización de actividades que no sean de atención directa como preparación de material, actividades, coordinación, memorias, etc.
Zerbitzua, hasiera batean, Zigordia kaleko 20an dagoen Udaberri eraikineko 2. solairuan emango da. Udalari egoki iruditzen bazaio, momenturen batean zerbitzuaren kokapena aldatu ahal izango du, edo kokapen ezberdinak gehitu, sortzen diren eskaerei erantzuteko.		El servicio se prestará inicialmente en la 2ª planta del edificio Udaberri, sito en Zigordia kalea 20. Si el Ayuntamiento lo considera oportuno podrá modificar en algún momento la ubicación del servicio, o añadir diferentes ubicaciones para responder a la demanda que se pueda crear.
Egin beharreko lanaren bolumen totala ez da aurrez zehaztuko; beraz, kontratuak irauten duen bitartean Udalak kontratatzaileari eskatzen dizkion		El volumen total de trabajo a realizar no se determinará de antemano, por lo que el número de trabajos a realizar estará en

beharren araberakoa izango da lan-kopurua. Udalak kontratatzaileari ordainduko diona taldeko eta eguneko prezioa izango da.		función de las necesidades que el Ayuntamiento requiera al contratante durante la vigencia del contrato. El precio que el Ayuntamiento abonará al contratante será el precio por grupo y día
7.- ZERBITZUAN ALTA EMATEKO PROZEDURA Erreferentziazko gizarte langileak zerbitzuaren inguruko informazioa eta orientazioa emango dio interesdunari. Interesdunak eskaera bat egin beharko du udal erregistroan eguneko arretako udal zerbitzuaren eskatzaileen zerrendan sartzeko. Eskaera ikusita, gizarte zerbitzuek txostena egingo dute. Bertan, banakako arreta-planari buruzko gaiak zehaztuko dira, eta eskatzaileak zerbitzuan parte hartzeko proposamena egingo da. Eskaera aztertu eta baloratu ondoren, zerbitzua jasotzeko eskaera onartu edo ukatu egingo da. Plaza libreak badaude, behin-behineko alta emango zaio zerbitzuan, eta hasiera emango zaio hilabeteko egokitzapen-aldiari. Plazarik ez badago, itxaron-zerrendan emango zaio alta, plazaren bat libre bat gelditu arte. Egokitzapen-hilabetea pasatu eta gero, kasuaren arduradunak ebatziko du ea interesduna behin betiko erabiltzaile gisa sartuko den ala ez, enpresa adjudikaziodunaren profesionalak egindako egokitzapen-txostenean oinarrituta. Erabiltzaileren batek zerbitzuan ezin duela jarraitu erabakitzen bada, Udaleko Gizarte Zerbitzuetako ordezkariak eta enpresan zerbitzuaren garapenaz arduratzen den profesionalak erabakiaren berri emango diote erabiltzaileari edo ordezkariari.		**7.- PROCEDIMIENTO DE ALTA EN EL SERVICIO** La Trabajadora Social de referencia informará y orientará a la persona interesada sobre el servicio. Para acceder a la lista de solicitantes del servicio municipal de atención diurna, la persona interesada deberá realizar la solicitud en el registro municipal. A la vista de la solicitud, los servicios sociales emitirán un informe en el que se concreten los aspectos relativos al plan individual de atención y se realizará la propuesta de participación de la persona solicitante en el servicio. Una vez analizada y valorada la solicitud, se aceptará o denegará la solicitud de recepción del servicio solicitado. En el caso de existir plazas libres, se procederá al alta provisional en el servicio, dando inicio a un periodo de adaptación de un mes. En el caso de que no exista plaza disponible, se le dará de alta en la lista de espera hasta que tenga plaza libre. Transcurrido el mes de adaptación, el responsable del caso resolverá sobre la inclusión o no de la persona interesada como usuaria definitiva, en base al informe de adaptación elaborado por el profesional de la empresa adjudicataria. En el caso de que se determine que alguna persona usuaria no puede continuar en el servicio, el/la representante de los servicios sociales municipales y el/la profesional responsable del desarrollo del servicio en la empresa informarán al/la usuario/a o representante de la decisión.
8.- ZERBITZUAREN EDUKIAK ETA METODOLOGIA		**8.- CONTENIDOS Y METODOLOGÍA DEL SERVICIO**

Arlo kognitiboarekin, fisikoarekin eta harremanen ingurukoekin lotutako gaiak landuko dira, metodologia aktibo eta parte-hartzaile baten bidez. Jarraituko den metodologiak kontuan hartu beharko du genero-ikuspegia. Hauek izango dira zerbitzuaren esku-hartze eremuak: • Eremu indibiduala: adineko bakoitzari zuzendutako esku-hartzea, bere baliabideak eta posibilitateak ezagutzeko, eta jarduerak bere benetako gaitasunera egokitzeko. • Talde eremua: parte-hartzaileen arteko harreman sozialak sustatzeko tailerrak eta jarduerak antolatuz. • Komunitate eremua: zerbitzua kokatuta dagoen zentroko bizitzan eta hurbileko inguruan adinekoak integratzeko. Programaren jarduerak tipologia hauetakoak izango dira: • Osasun fisikoa sustatzea • Osasun kognitiboa sustatzea • Harreman sozialak eta integrazioa sustatzea • Izaera ludikoa eta esku-lanen arlokoa Zerbitzu honetan ez dira sartzen garraioa, mantenua, higiene pertsonala eta zaintza-lanak.		Se abordarán aspectos relacionados con el ámbito cognitivo, físico y relacional a través de una metodología activa y participativa. La metodología a seguir deberá tener en cuenta la perspectiva de género. Los ámbitos de intervención del Servicio serán los siguientes: • Ámbito individual: intervención dirigida a cada persona mayor para conocer sus recursos y posibilidades, para adecuar las actividades a su capacidad real. • Ámbito colectivo: organizando talleres y actividades para fomentar las relaciones sociales entre los participantes. • Ámbito comunitario: facilitando la integración de las personas mayores en la vida del centro donde se ubica el servicio y en su entorno más cercano. Las actividades del programa se ajustarán a las siguientes tipologías: • Promoción de la salud física • Promoción de la salud cognitiva • Fomentar las relaciones sociales y la integración • Carácter lúdico y de manualidades Este servicio no incluye transporte, manutención, higiene personal y cuidados.
9.- ENPRESA ADJUDIKAZIODUNAREN BETEBEHARRAK - Udaleko Gizarte Zerbitzuekin lankidetzan aritzea zerbitzua abian jartzeko, eratzen den taldearen edo taldeen bidez, eta haien jarraipena eta ebaluazioa egitea. Horretarako, eskatzen zaizkion bileretan parte hartuko du eta eskatzen zaizkion txostenak egingo ditu. - Zerbitzua emateko behar diren langileak edukitzea eta bajak berehala betetzea. - Zerbitzuaren programazio orokorra diseinatzea eta kontratuaren		**9.- OBLIGACIONES DE LA EMPRESA ADJUDICATARIA** - Colaborar con los Servicios Sociales Municipales en la puesta en marcha del servicio, a través del equipo o grupos que se constituyan, realizando su seguimiento y evaluación. Para ello, participará en las reuniones y emitirá los informes que se le soliciten. - Disponer del personal necesario para la prestación del servicio y cubrir las bajas de forma inmediata. - Diseñar la programación general del servicio y remitirla al responsable del

arduradunari bidaltzea, gauzatu aurretik onartzeko.		contrato para su aprobación previa a la ejecución.
- Gizarte Zerbitzuetako Departamentuarekin hileroko koordinazio-bilerak egitea kasuen jarraipenerako.		- Reuniones mensuales de coordinación con el departamento de servicios sociales para el seguimiento de los casos.
- Urte bukaerako memoria aurkeztea, genero-ikuspegia kontuan hartuta.		- Presentar la memoria de fin de cada ejercicio con perspectiva de género.
10.- GIZA BALIABIDEAK Zerbitzua behar bezala gaitutako langileek eman beharko dute, plegu honetan adierazten den eran. Adjudikazioduna arduratuko da dagokion zerbitzura atxikitako giza-baliabideek hura behar bezala eta eraginkortasunez emateko prestakuntza egokia dezaten: Gradua edo Diplomatura Gizarte Heziketan, Gizarte Lanean, edo Gizarte Zientzien arloan bestelako gradu, diplomatura edo lizentziaturaren bat (besteak beste, Terapia okupazionala, Magisteritza, Pedagogia, Psikologia, Psikopedagogia…) edo Gizarteratze Teknikaria (Goi mailako Heziketa Zikloa). Adinekoentzako eguneko arreta zerbitzua eta/edo gutxienez 100 orduko esperientzia adinekoentzako taldekako esku-hartzean.		**10.- RECURSOS HUMANOS** El servicio deberá prestarse por personal debidamente cualificado, en la forma prevista en el presente pliego. La adjudicataria se encargará de que los recursos humanos adscritos al servicio correspondiente tengan la formación adecuada para su correcta y eficaz prestación: Grado o Diplomatura en Educación Social, Trabajo Social, o en el área de Ciencias Sociales algún grado, diplomatura o licenciatura (entre otros: Terapia ocupacional, Magisterio, Pedagogía, Psicología, Psicopedagogía…) o Técnico en Integración Social (Ciclo Formativo Superior). Servicio de atención diurna para personas mayores y/o experiencia mínima de 100 horas en intervención grupal para personas mayores.